

## BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Gure enpresa Bilbon kokatuta dagoanez, denda fisikoan erosiko dabena pertsonak Bilboko eta inguruetako bigarren eskuko arropa alokatzeko, prest dagozan eta ebentua (ezkontza, jaialdi, festa berezi bat...) dabena emakumeak izango dira gure bezeroak. Izan ere, Espainia mailan datuak hauek dira:

- 18-24 urte bitarteko pertsonen % 50 erosten dau bigarren eskuko arropa.
- 25-38 urte bitarteko pertsonen % 42 erosten dau bigarren eskuko arropa.
- 39-50 urte bitarteko pertsonen % 41 erosten dau bigarren eskuko arropa.
- 51-65 urte bitarteko pertsonen % 28 erosten dau bigarren eskuko arropa.

(thredUP, "2021 Resale Report")

Gainera, eMarketer merkatu-ikerketako enpresak argitaratu berri dauan ikerketa baten arabera, % 132,4 handituko dira erosle bakoitzeko bigarren eskuko arroparen urteko batez besteko salmentak 2025erako. Beraz, Bilbon datu hauek aplikatuz, bigarren eskuko arroparen erabilera handituko dala aurreikusi geinke.

Gure denda bigarren eskuko jaialdietarako arropa alokatuko denez, bertan kontsumituko dabena emakumeak birziklatzearen eta berrerabiltzearen garrantziaz jabetzen diran pertsonak izango dira, honek ingurugiroarekin sensibilizatuta dagozan pertsonak dira. Gainera, ez jake axolako bigarren eskuko arropa erabiltzea. Horretaz gain, horrelako bezeroak ohituak daude web-plataformetan bilatzera eta erostera, ez baita oso ohikoa bigarren eskuko arropa saltzen edo alokatzen dabena dendak aurkitzea, eta hori modu fisikoan egiten dogu guk.

Are gehiago, etorkizunean Espainian bidalketak egiten hasiko bagina, Estatuko emakumeak ere izango litzatekez gure bezeroak, hau da, gure bezeroen segmentua handituko litzateke bigarren eskuko arropa erabiltzen dabena espainiar emakumeen artean.